

NIRE DATU PERTSONALAK ESKUBIDE ARIKETAREN ESKABIDEA

TRATAMENDUKO ARDURADUNAREN DATUAK, eskubidea honen aurrean baliatu nahi da.

Arabat, Arabako Bideak- Vías de Álava, S.A.	
Vicente Goikoetxea kalea, 1 -1, 4. Bulegoa, Vitoria-Gasteiz (Álava/Araba) / Telefonoa: 945 13 46 90	
Datuak Babesteko Ordez kariaren kontakua: dpd@arabat.org	
Eskubidea egin nahi den Tratamendu-jarduera:	Tratamendu-jarduera.

ESKATZAILEAREN DATUAK,

Izen ta abizenak	Izen ta abizenak.				
NAN edo dokumento baliakidea		Sexua	<input type="checkbox"/> Emakumea	<input type="checkbox"/> Gizona	
Jakinarazpenetarako helbidea	Kalea, Zk, Pisua	Helbidea			
	Herria	Herria	Lurraldea	Lurraldea	PK
Telefonoa		Posta elektronikoa	Posta elektronikoa.		

Borondatezko edo legezko ordez kariaren datuak (ezinduen edo adingabeen kasuan):

Izen- abizenak	Izen-abizenak	
Ordez kari tipoa	<input type="checkbox"/> Legezkoa	<input type="checkbox"/> Borondatezko
NAN edo dokumento baliakidea		

NIRE ESKUBIDEA EZKATZEN DUT:

Eskuratzea Ezabatzea Zuzentzea Aurkatzea Mugatzea Transferitzea

Hurrengo alegazioetan oinarritzen dudala:

Idatzi hemen

Horretarako, eskabidea justifikatzen duen dokumentazioa erantsi dut (zerrenendatu):

1.

2.

Data	Eskatzailearen sinadura
Lekua	

Argibideak

Eskubideak:

- **Eskuratze-eskubidea** Tratamenduaren Arduradunarengandik tratatzen ari badira edo ez diren zure datu pertsonalak jakiteko eskubidea da. Halako kasuan, zein datu tratatzen ari den, zein helbururako, zein den datu horien jatorria, zein den datuak gordetzeko epea, eta zein diren hartzaileak edo hartzaile-kategoria, halakorik balego. (3/2018 Lege Organikoaren 13. art eta 2016/679 Erregelamenduaren 15. art)
- **Zuzenketa eskatzeko eskubidea:** Erabiltzaileak zehatzak ez diren edo osatu gabe dauden datu pertsonalak zuzentzea eska dezakete, eta baita adierazpen gehigarriarekin ere. Horiek horrela, eskaeran adierazi beharko du zein datu diren eta zein zuzenketa egin behar den, eta derrigorrez atxiki beharko du tratatutako datuak osatu gabe daudela edo zehatzak ez direla frogatzen duten dokumentuen fotokopia. (3/2018 Lege Organikoaren 14. art eta 2016/679 Erregelamenduaren 16. art)
- **Ezabaketa eskatzeko eskubidea** ("ahazteko eskubidea"): Erabiltzaileek beren datu pertsonalak ezabatzeko eska dezakete eta ez daitezela gehiago tratatu, jaso ziren edo beste era batera tratatzeko xedeetarako beharrezkoak ez balira, baimenik ematen ez badute, legez kanpo tratatu badira edo lege betebeharrak betetzeko ezabatu behar badira. (3/2018 Lege Organikoaren 15. art eta 2016/679 Erregelamenduaren 17. art)
- Beren datu pertsonalen **tratamendua muga dadin eskatzeko eskubidea:** Europako araudian aurrez ikusitako baldintzetako bat betetzen denean, datuen tratamenduaren muga tratamenduko arduradunarengandik lortzeko eskubidea da. Kasu honetan, datu pertsonalak gordeta izango dira, erreklamazioak egin, gauzatu edo defendatzeko, beste pertsona fisiko edo juridiko baten eskubideak babesteko edo interes publiko garrantzitsua duten arrazoiengatik. (3/2018 Lege Organikoaren 16. art eta 2016/679 Erregelamenduaren 18. art)
- Beren datu pertsonalak **transferitzeko eskubidea:** Haiei edo adierazten diguten beste arduradun bati beren datu pertsonalak emateko eska diezagukete, erabilera komun eta irakurketa emekanikoko formatu egituratu batean. Eskubide hau hedatzen da baimena betez eman diren datuetara edo kontratu batetik. Beraz, interes publikoak edo botere publikoko ariketak legitimatutako Administrazio Publikoetako kasuan, eskubide hau egiteko aukera egitura tekniko interoperagarriko garapenaren mendean egongo da. (3/2018 Lege Organikoaren 18. art eta 2016/679 Erregelamenduaren 21. art)
- Datuak tratatzeari **aurka egiteko eskubidea:** datu pertsonalak tratatzeari utziko dio erabiltzaileek adierazten duten moduan, profilantzea sartuz, premiazko arrazoi legitimoak direnean izan ezik, edo balizko erreklamazioei aurre egiteko beharrezkoa denean izan ezik.

Formularioa betetzeko jarraibideak eta idatziarekin batera aurkeztu beharreko agiriak

- Beharrezkoa izango da **zer tratamendu zehatzen** egin nahi duen bere eskubidea zehaztea. Tratamendu zehatzaren ez bada esaten, eskubidea tratamendu guztiei dagokienez trbatzen dela ulertuko da. Horretarako, Tratamendu Erregistroa eta Arduradunak (TJE) www.arabat.org webgunean duzue.
- Ezinbestekoak dira **izena, abizenak eta NANaren** edo zuzenbidean baliozkoa den identifikazio pertsonalerako beste edozein agiriren fotokopia.
- Egin dezake **zuzenki**, edo borondatezko edo legezko **ordezkari bidez**.
- Interesatua **ezinduta** badago, ezinbestekoa izango da legezko ordezkariak ere aipatu berri ditugun datu horiek aurkeztea. Horrez gain, legezko ordezkariak egiaztatzeak agiria aurkeztu beharko da.
- **14 urteko adingabeko** kasuan guraso-ahaleko pertsona titularrek irudikatu behar izango dituzte.
- Pertsona interesatuak bere eskaeraren erantzuna jaso ahal izango du izapideko **plataforma elektronikoaren** bidez, edo jakinarazpenetarako emandako **helbidearen bidez**.
- Pertsona interesatuak eman behar izango du bere eskaeraren kausak, eskubide zehatzaren ariketarako beharrezkoa bada, **akreditatzen dituen dokumentazioa**.
- Data eta interesatuaren **sinadura ere beharrezkoak** dira.
- Froga-balioaren ikuspegitik, komeni da interesdunak idatzia bidali duela gordetzea, erregistro-sarrerako zenbakiaren bidez, edo posta ziurtatuz bidali izanaren ziurtagiriaren bidez.

Araudi aplikagarria

- Apirilaren 27ko **2016/679 (EB) Erregelamendua**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra, DBEO)
- Abenduaren 5eko **3/2018 Lege Organikoa**, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa.
- Otsailaren 25eko **2/2004 Legea**, datu pertsonalen fitxategiari eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa.
- Urriaren 8ko **308/2005 Dekretua**, otsailaren 25eko 2/2004 Legea, titulartasun publikoko datu pertsonalen fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzkoa, garatzen dueña.

Zein kasutan uka daitekeen eskurapena

- Ukatu ahal izango da baldin eta eskubidea **hamabi hilabeteko** edo hortik beherako denbora-tartean baliatu bada eta ez bada eskubidea baliatzeko inolako interes legitimorik egiaztatzen.
- Orobat ukatuko da baldin eta interesdunaren ordezkari beste pertsona batek egiten badu eskaria, edo **beharrezko den ordezkariak gabe** egiten bada.
- Era berean, eskurapena ukatuko da baldin eta hala aurreikusten bada **lege batean** edo zuzenean aplikatzeko den zuzenbide komunitarioko arauen batean, edo lege edo arau horiek tratamenduaren arduradunari galarazten badiote ukituei ikusi nahi diren datuen tratamenduaren berri eman ahal izatea.
- Azkenik, eskurapena ukatzeko arrazoia egon liteke interesdunaren datuak **blokeatuta** daudenean, horrek, ondorio praktikoetarako, dagoneko ezeztuta daudela esan nahi baitu. Ezeztatzeak ez ditu datuak automatikoki eta kasu guztietan ezabatzen edo fisikoki desagerrarazten, baina tratamendupean dauden datuen blokeoa ezar dezake

Prozeduraren baldintzak tratamenduaren arduradunarentzat

- Arduradunak eskatzaileari estimatuz edo eskaera ukatuz gehienez hilabeteko epean erantzun beharko dio, eskaera jasotzen denetik hasita. Epe honi bi hilabetera luzagarria da konplexutasunaren edo eskaera-kopuruko arabera. Azken kasuan, aipaturiko luzapeneko pertsona eskatzailea informatuko du hilabete bateko epean.
- Interesdunaren datu pertsonalak agertu ala ez, arduradunak erantzuna eman behar du. Eskaerak ez baditu betetzen eskaturiko betekizunak, akatsak zuzentzeko eskatu beharko du.
- Informazioak modu **irakurterraz eta ulergarrian** jaso beharko ditu bildutako datu pertsonalak eta edozein lanketa, prozesu edo tratamenduren ondoriozkoak; bai eta datuen jatorria, lagapen-hartzaileak (datuak jakinaraziko zaizkien edo jakinaraztea aurreikusitako instituzio eta erakunde publiko nahiz pribatuak), eta datuak zein erabilera eta xede zehatzetarako biltegitatu ziren.
- Datuak ematea **doan** da.

Erreklamazioa

- Eskatzaileak uste badu ez zaiola behar bezala ahalbidetu bere eskubideaz baliatzea, dokumentatutako eskaera aurkez zuzen dezake **Datuak Babesteko Ordezkariaren** aurrean bere posta elektroniko-helbidearen bidez: dpd@arabat.org, edo kexa kontrol-agintaritzak konpetenteari, **Datu Babesteko Euskal Bulegoa edo Datu Babesteko Espainako Bulegoa** aurkeztea. Epailearen babesa eskatu ahal izango du ere.

Erreklamazioarekin batera honako agiriarekin bat aurkeztu beharko da:

- Eskatutako informazioa emateko tratamenduaren arduradunaren ezetza.
- Eskubidea eskatzeko ereduaren kopia, tratamenduaren arduradunaren erakundearen sarrera-erregistroan zigitatutakoa.
- Posta ziurtatuz egindako bidalketaren frogagiriaren kopia edo posta-bulegoko kopiaren zigitua, eskaera posta arruntaren bidez bidali bada.